

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

GAIA.- BEKOETXE EGUNeko ZENTROA BERRIRO IREKITZEA ETA LANGILEAK JARDUNERA ITZULTZEA PROGRESIBOKI.

COVID-19 deritzon koronabirusaren ondorioz ezarritako konfinamendutik irteteko prozesua aribidean den honetan, maiatzaren SND/399/2020 Aginduak, zeinaren bidez malgutzen baitira alarma-egoera deklaratu ostean estatuan ezarritako zenbait murrizketa, normaltasun berrira iragateko planaren 1. fasea aplikatuz, adierazten du ezen, gizarte-zerbitzuen arloan, xedatzen dela zentro guztiak ireki daitezela baldin jasota badaude Gizarte Zerbitzuen Erreferentziako Katalogoan, zeina onetsi baitu Gizarte Zerbitzuen eta Autonomia eta Mendetasunerako Arreta Sistemaren Lurralde Batzordeak, zentrootan aurrez aurre artatu ahal izan daitezkeen beharra duten herritarrak, arreta berezia emanez desgaitasuna eta/edo mendetasuna duten pertsonentzako zerbitzu hauei: terapia, errehabilitazioa, arreta goiztiarra eta eguneko arreta.

Bestalde, Lehendakariaren maiatzaren 10eko 8/2020 Dekretuak, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrurako ezartzen baitira Espainiako gobernuarekin adostutako aldaketak, zabalkuntzak eta murrizketak, alarma-estatua deklaratu ostean ezarritako murrizketak malgutzeari begirakoak, normaltasun berrira iragateko planaren 1. fasea aplikatuz, ministro-agindu horren irispidea zedarritzen du gure eremuan, osasun-larrialdiak EAEn duen bilakaerara egokitzeko, zehaztasun-printzipioa oinarri hartuta, eta atzeratu egiten du liburutegiak, museoak eta kultur ekintza eta ikuskizunak gauzatzen dituzten lokal eta establezimenduak publikoarentzat berriz irekitzeko data.

Hala, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gizarte Ekintza Sailaren bidez, adierazi du komenigarria dela desgaitasuna duten pertsonentzako Bizkaiko Lurralde Historikoko eguneko arretazentroek, erabat hartuta, beren jardunari berriro ekitea. Arrazoi da, horrenbestez, Erakunde honek xeda dezala Bekoetxe Eguneko Zentroaren jarduna berriro hastea. Dena dela, erabiltzaile ugari ez zaizkio jarduerari lotuko lehen berrekite-fasean –hala adierazi dute eta–, eta arrazoizkoa dirudi zentroko langileak ere era progresiboan hasi ahal izatea lanean, zentroak normaltasun osoa berreskuratu arte.

GUFEn gerente andreari dagokio gai honen gainean erabakitze eskumena, hala ezartzen baitu 9. artikuluan maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauak, Erakunde honen Estatutuak aldatzeari buruzkoak. Hona, beraz, hark ematen duen

EBAZPENA

Lehenengoa- Xedatzen da Bekoetxe eguneko zentroa berriro irekitzea, hil honetako maiatzaren 25ean, astelehena; horrekin, batera, bertako langileak era progresiboan itzuliko



dira jardunera, normaltasun osoa berreskuratu arte, haien postuaren dibisioko burutzak zehazten dituen forman eta ondoreekin.

Bigarrena.- Ebazpen honen edukia behar bezala betearaz dadin, aski izango da langileei formalki jakinaraztea zerbitzu-agindu bat, Pertsonak Zuzentzeko Departamentuak eskatu ahal izango duena.

Hirugarrena.- Honen berri ematea Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen Dibisioko buruari, Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen Dibisioko buruari eta Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruari.

Laugarrena.- Ebazpen hau zerbitzu zentraleri jakinaraziko zaie, eta Erakundearen iragarki-oholean eta Intraneten argitaratuko da. Hala bete bedi.

Bilbon, 2020ko maiatzaren 22an

GUFE-REN GERENTEA

Sin.: Nerea Urien Azpitarte

A handwritten signature in blue ink, consisting of several overlapping loops, positioned over the text 'Sin.: Nerea Urien Azpitarte'.